

Zaldibarko futbitoa hasten da

ARRASATE ^{PRESS}


1993ko urriak 1

206. zenb.

Kultura
**Garibai etxearen
kondaira**

Gora Maritxu Kajoi!





Jose Aranzabal



Jose Aranzabal eta Fagor Sukaldeak 16 urte elkar lanean

S. Andres Auzoa - Tfnoa: 79 18 92

I R T A B E R N A

Ferrerias kalea
ARRASATE
Tfnoa: 79 56 11

13tik 30era itxita
oporrengatik

ZUHAITZ

jatetxea!




Tfnoa: 71 46 08

GATZAGAN



Aldizkari honek
Gipuzkoako Foru Aldundiaren
laguntza jaso du



Aldizkari honek
Eusko Jaureritzako Kultura eta
Turismo Sailaren laguntza jaso du

Nor gera gu? Zer gera gu?

Egunkaria da, lagunartea eta familiaz gain, errealitatea ezagutzen laguntzen digun instrumentu garrantzitsuetako bat. Egunkaria irakurtzean, gure gizartean eta mundu zabalean gertatzen denaren berri jasotzea espero dugu.

Baina gure artean ditugun egunkariak hartzen baditugu, ikuspuntu desberdina ematen digute gure gizartea zein den zehazterakoan. Hortarako, irailaren 14ko prentsari emango diogu begirada bat.

• Euskaldunon Egunkaria:

Euskaraz. Gertakizunak, jaiak, hildakoak, eguraldia, zazpi herrialdeei doazkien ematen ditu. Kultur ekintzetan Ifar aldekoak jasotzen ditu Hegoaldekoekin batera. Eta eguneroko agendan, euskarazko telebistari ematen dio lehentasuna. Politikaz ari denean bertan azaltzen dira Hego eta Ifar aldeko berriak. Hortaz gain, tratamendu berezia ematen die Euskal Herria hartzen duten bi estatuari, Frantzia eta Espainiari, "Estatuak" deritzan sailean. Gero datoz nazioarteko berriak.


• Deia:

68 orritatik 2 euskaraz. Hego Euskal Herrikoak dira ematen dituen gertakizun eta istripuen berriak; baita informazio politikoak ere. Eguraldia, Euskal Herri osokoa. Espainiaz informarzen du "Estatua" deritzan sailean. Munduko informazioa doa hortaz gain. Telebistan, euskarazkoa bat gehiago besteen artean.

• Egin:

64 orritatik 5 euskaraz, eskelez kanpo, Baionako berri bat jasotzen du. Gainerako informazioa, Hego Euskal Herriari dagokiona da. Eguraldia, Euskal Herri osokoa. Espainiaz informatzen du "Estatua" deritzan sailean. Munduko informazioa dator gero. Ez du aipamen berezirik euskarazko telebistaz.

• El Diario Vasco:



64 orritatik 1 euskaraz, eskelaz kanpo, **Eus-**kal Autonomi Elkarteko informazioa ematen du. Hortaz gain, Espainiako eta munduko. Ofiziala den Gipuzkoa izenaren orde "Guipuzcoa" darabilki. Eguraldia ematean Hego aldeko 4 herrialdeak sartzen ditu.

• El Mundo del País Vasco:

Euskaraz batere ez. Hegoaldeko 4 herrialdeen berri ematen du, Espainiako eta nazioarteko. Gizarteaz ari denean, Espainian kokatzen da. Eguraldia, Euskal Herri osokoa ematen du.

• El Correo Español - El Pueblo Vasco:

Euskaraz batere ez. Euskal Autonomi Elkarteko informazioa dakar. Hortaz gain, "Nacional" deitzen dio Espainiako informazioari. Gero datoz "nazioartea" saileko berriak. Gipuzkoa izenaren orde "Guipuzcoa" darabilki. Eguraldia ematean, EAEz gain, Nafarroa eta Errioxa ere hartzen ditu.

Arian-arian irakurtzen den prentsaren (eta ikusten den TB-ren) ikuspuntua norberarenganatan dela kontuan hartuta, galdetzekoa da zer herri osatuko dugun:

- Euskal Herri osoko informaziorik jaso gabe,

- Heltzen zaigun informazioa gaztelaniz emandakoa izanda eta

- Gaztelaniazko kultura geurea balitz bezala azaltzen dugutenean.

RUFINA OLASAGASTI

• ARRASATE PRESS •

Argitaratzailea: ARKO (Arrasate Komunikabideak) Azoka kalea, 1. 20.500 - ARRASATE (Gipuzkoa) Tfnoa: 77 05 65. Faxa: 77 09 40

Laguntzaileak: Arrasateko Udala. **Zuzendaria:** Arantza Loidi. **Kazetariak:** Luis Fernandez, Maider Egües, Maria Agirre. **Publizitatea:** Amaia Gabilondo (77 08 15). **Administrazioa:** Agurtzane Gaintzarain (Tfnoa: 77 08 15). **Maketazioa:** Txos Azurmendi. **Kolaboratzaileak:** Mikel Irizar, Blanka Jauregi, ASA taldea, Sabin Arrieta, Jon Garai, Joxe Ramon Elortza, Amaia Jauregi-Arraburu, Udako Ingurugiro Eskola, Juan Bautista Agoria, Leintz Berto eskola, Jose Mari Astigarraga, Jesus Larrañaga, Matilde Sainz, Iker Barandiaran, Jon Iñaki Lasa, Xabier Letona, Iñintza, Mikel Olabe, Mari Tere Alonso, Liherr Larrea, Antton del Campo, Sorginak, Kofi, Daniel Goikolea, Iban Astondoa, Haritz Larrinaga, Cesar Cimiano, Leire Zubikarai, Koldo Zubizarreta, Joseba Vallés, Agerre, Mario Egües. **Banaketa arduraduna:** Jabier Ozaeta. © ARRASATE PRESS. **Tirada:** 5.500. **Logo-Gordailua:** 1124/88. **ISSN:** 0214-4654. Frankeo kontzertatua. **Inprimategia:** Gertu Koop. E. (Zubillaga, Ohati).

ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



ARRASATE PRESS
paper ekologikoan egiten da.

Azaleko argazkia: 1991ko Maritxu Kajoi.

TTUKUN

Fotokopiak
Enkuadernazioak
Koloretan fotokopiak
Planoen erreproduzioa
Offseta

Ferrerias, 23 ARRASATE
Tfnoa: 79 46 62

**ARTOLA
KOMERTZIALA**

Zerkaosteta, 3
Tfnoa: 79 14 40
ARRASATE

Txitxinpe

Berezitasunak:
Kafea, ardoa, urdaitegia,
fruitu lehorrak

Arrasate Pasealekua, 33
ARRASATE Tfnoa: 79 67 76

VE ECUADOR**Bidaiak**

Kontzeziño, 2
ARRASATE
Tfnoa: 79 14 06

Memesa
79 42 22**HIES EKIMENA**

Astelehen, astearte
eta ostiral
5etatik 8etara.

Tfnoa: 79 26 99

•••••
**Gazteei
kilometroetara
begira**

H Euskara eta ikas-
tolen aldeko jaiaren
atarian gaudenez, aurreko
urteetan gertatutakoari buruz
pare bat hausnarketa egin
nahi nituzke. Gero eta jende
gehiago gerturatu ohi da jai
euskaltzale honetara eta hau
poztekoa bada ere, Ikastolek
jasotako diru portzentaia jeit-
siz doa eta hor gazteok ze-
rikusia badugula uste dut.
Gazteok jai hauetan edari eta
janean gastatzen dugun diru
kopuru handia kontutan izani-
nik, ez litzateke batere gaiz-
ki egongo diru piska bat zir-
kuitoko postuetan gastatzea:
sarrera, kamiseta, txapela
edo pegatinetan adibidez, ez
dezagun ahaztu jai egin
hauek azken finean Ikasto-
len beharrak asetzeko hel-
burua dutela. Baina hau ez
da ez nere ardura nagusia;
iaz, AEDk antolatutako au-
tobusetan erdara hutsean hi-
tzegiten aritu ziren gazte
euskaldun ugari, abesti es-
painolak abestuz batzuk, jai
hauetako euskal giro jatorra
hondatuz. Gazteok, utz di-
tzagun behingoz jokabide
hauek alde batera. Ondo pas-
sau!

GAZTE BAT

•••••
Epa, gazteok!

D atorren Pilarika zu-
bian zerbait egin nahi
eta ez daukazula norekin?

Asmo handiak, baina inor ez
zurekin joateko? Lau egun
jai izanda, zure asmoak piku-
tara joango direla inor ez
duzulako aurkitzen?

Ez zaitez horrela geratu:
hemen zure ideia eta asmoen
berri jasotzeko prest gaude,
eta, zergatik ez, datorren zubi
honetan zurekin joateko ere
bai.

Zure asmoak betetzeko
dei 793858 telefonora gaue-
ko 9etatik 10etara eta Izas-
kunez galdetu.

**IRAKASLE ESKOLAKO 3.
MAILAKOAK**

•••••
**Sua itzaltzeko
ura**

Gurutze Yanci eta Xa-
bier Galparsororen
tortura bidezko hilketa sala-
tzeko Irakasle Eskolako
ikasleok konbokaturik ze-
goen greba orokorraz bat
eginez kalera irtetea erabaki
dugu.

Komunikatu bat ez da
nahikoa egoera guzti hau
salatzeko, ez eta greba egi-
tea ere, izan ere honek sor-
tzen duen amorraren sua
itzaltzeko ur asko behar bait
da.

Gurutze gaiso hil omen da ta

**Xabier berriz erori
berri hoiexen gezur isilak
nazka damaigu askori.**

**Hilketa hauek jarria dute
amorrua gori-gori**

**denon laguntzaz lortuko dugu
behar den ur guzti hori.**


**IRAKASLE ESKOLAKO
IKASLEAK**

•••••
**ARKO-ko
langileok
grebarekin bat**

A RKO-ko langileok,
asanbladan bildurik,
Gurutze Iantzi eta Xabier
Kalparsororen heriotzengatik
deitutako grebarekin (as-
telehena, hilak 27) bat egi-
tea erabaki dugu, gertatu-
tako salatuz, eta Iantzi eta
Kalparsororen senide eta
hurbilenekoei elkartasuna
adieraziz.

Komunikabideen lana
informatzea izanik, Arrasa-
te Telebistan grebaren inguru-
rako berriei osatutako al-
bistegia emititzea erabaki
dugu, beste saiorik eskaini
barik (greba egunean). Era
berean, ohar hau ARRASATE
PRESS aldizkarian kaleratzea
erabaki dugu.

ARKO-KO LANGILEAK

**OKORETEGI
kafetegia**

Juan Carlos Gerra Plaza, Tfnoa: 77 03 62
ARRASATE

**ARRASATE
PRESS
HARPIDETZAK**


77 05 65

Masifikatuegia ote dago Maritxu Kajoi jaia?



**Esther Uribeetxebarria
Bulegaria (29 urte)**

Bai, niretzako gehiegi. Edozela ere ez naiz Arrasatekoa, Eskoriatzako naiz, baina bi urte badira ez naizela etortzen.




**Josemi Zubia
Fagorreko langilea
(36 urte)**

Bai, niretzako bai, larregi gainera. Lehen jende gutxiago zebilen, orain agobiantea da.



**Isabel Urzelai
Dendaria (25 urte)**

Bueno, jaia oso polita da eta masifikatuta egon behar da derrigor. Hobeto igual herriko jendea bakarrik.



**Ignacio Etxeberria
Ikaslea (23 urte)**

Grazia dauka hainbeste jende ibiltzeak, baina igual bai, igual gehiegi da.



**Miren Lasagabaster
Dendaria (33 urte)**

Bai, ni lehen irteten nintzen baina orain jada ez zait gustatzen. Jende gehiegi.



**Luis Eriz
Banketxeko langilea
(28 urte)**

Igual lehen jende gehiago zegoen, eta gogo hobea, baina apurka behera joan da giroa eta orain ez dator hainbeste jende.



**Oihana Landa
Ikaslea (16 urte)**

Pixkat badago masifikatuta, jende larregi egoten da tabernetan, baina ondo dago, horrela hobeto.




**Eduardo Jauregi
Ikaslea (25 urte)**

Bai, agian bai, baina pentsatzen dut oso egun berezia denez, derrigor izan behar duela horrela.

**ESKIÑA
TABERNA**
GIRO ATSEGINA GAU HONETARAKO

Olarte Kalea, 25 ARRASATE



LOGOPEDIA
ZENTRUA
ARRASATE

HIZKUNTZ ARAZOAK

HIZKETA ARAZOAK

AHOTS ARAZOAK

IRAKUR ETA IDATZ ARAZOAK

Zurgin Kantoi, 3 - 1º Esk.
Tfnoa: 79 79 46 • ARRASATE

BEHARREZKO TELEFONOAK

Eritetxeak
 Arrasateko Eskualde-Ospit. 79 53 00
 Iguatorialdea 79 05 00
 Santa Agedako Ospitalea
 (gizonak) 79 39 00
 (emakumeak) 79 44 11
 Buru osasunerako zentrua 79 90 11

Gurutze gorria
 Bergara 76 55 76

DYA
 Antzuola 76 62 91

Anbulatorioak
 Arrasate (Larrialdiak) 79 13 57
 (Txanda hartzeko) 77 03 46
 77 07 21
 Oñati 78 08 52
 Eskoriatza 71 44 52
 Aretxabaleta 79 74 58
 Aramaio (945) 45 51 16

Anbulantziak
 Gipuzkoako ambulanziaz 45 87 44

Udaltzaingoa
 Oñati 78 04 11
 Bergara 76 14 69
 Arrasate 79 14 39
 Aretxabaleta 79 10 52
 Eskoriatza 79 03 22

Ertzaintza
 Arrasate 79 71 99

Suhiltzaileak
 Udal taldea 79 09 00
 Udal taldeko suhiltzaile
 burua 79 20 72
 Zubillagako Eskualde-Parkea 78 28 00

Matxurak
 Urak (udal zerbitzua) 79 09 00
 Elektrizitatea (Iberduero) 79 05 81
 Gasak 900 40 05 23
 79 78 44
 79 76 78

Garraioak
 Taxiak 79 12 22
 P.E.S.A. 79 14 19

Hirugarren adinekoentzako zentruak
 Iturbide Egoitza 79 72 11
 Abaroa jubilatuen egoitza 79 81 57

Kontsumitzailearentzako informazioa
 Deba Garaiko Kontsumitzaile eta
 Erabiltzaileen Elkartea 79 87 77
 KIUB-OMIC 79 51 55

Monterongo liburutegia
 Monterra 77 01 05

GOARDIAKO FARMAZIAK

Ostirala 1
 Egunez: Morales. San Andres.
 Gaez: Puy. Barrenkale.

Larunbata 2
 Egunez: Azkoaga. Ferrerías.
 Gaez: Guallar. San Antonio.

Igandea 3
 Egunez: Español. Iturriotz.
 Gaez: Guallar. San Antonio.

Astelehena 4
 Egunez: Corcuera. Musakola
 Gaez: Guallar. San Antonio.

Asteartea 5
 Egunez: Irizar. Erguin.
 Gaez: Mozos. Pedro Deunaren.

Asteazkena 6
 Egunez: Ameza. Sta. Marina.
 Gaez: Guallar. San Antonio.

Osteguna 7
 Egunez: Ruiz. Maala.
 Gaez: Puy. Barrenkale.

1 OSTIRALA

MARITXU KAJOI JAIA BERTSO SAIOA
 Oñatiko Zubikoan. Gaueko 10,30tan. Bertsolariak: Jon Lopategi, Jon Enbeita, Xabier Eguzkitze, Maddalen Lujanbio, Estitxu Arozena, Juan Jose Eizmendi "Loidisaletxe".

OSKORRIREN KONTZERTUA
 Elorrioko polikiroldegian. Gaueko 22,30etan.

OZAETARA IRTEERA

Gazteei zuzendua. AEDko Gazte Mobidak antolatuta. Urriaren 9tik 12ra. Matrikula 3.000 PTA. Izena eman lehenbait lehen AEDn edo 771228 telefono zenbakian.

2 LARUNBATA

ZINEA
 "El último gran héroe". 7etan eta 9,30etan.

HERRI EGUNA OÑATIN
 14 artisauren lanak ikusgai. Unibertsitateko klaustroan. Arratsaldeko 5,30etan Herri Kirolak Foru Enparantzan.

HIRUGARREN ADINEKOENTZAT BIDAIAK

Andaluzia, Katalunia, Murtzia, Valentzia edo Balear Uharteetara. Izenez mate epea, irailaren 27an zabalduko da eta urriaren 31n bukatuko da. Eroski, Ecuador, Bascotour edo Meliá bidaia agentzietan. Egonaldiak 14 egunetakoak izango dira. Plazak azaroan ospatuko den zozketa baten bitartez banatuko dira.

3 IGANDEA

ZINEA
 "El último gran héroe". 7etan eta 9,30etan.

KILOMETROAK 93
 Ordizian.

SAN MIGELAK OÑATIN
 Foru Enparantzan kontzertua Udal Musika Bandarekin. Eguerdikoko ordu batean.



MARITXU 93

Goizeko 8etan itxafleruak. 5etan Auskalo taldea gaztetxoan animatzeaz arduratuko da. 6,30tan berriz, Ostadar txarangaren ordua izango da. Txaranga batera, gaitero, erraldoi eta buruhandixek aterako dira. Kuadrilek urtero egiten duten lore eskaintza, 8retan. Seberon 11,30etan Txinparta taldearen dantzaldia. 12etan herriko plazan Adiskideak orkestra. Aurtengo Maritxu Kaba berriz, 2etan presentatuko da. Jarraian, "Guztiok Bat-Man" antzezlanaren eskeiniko da. Goizeko 5,30tan tortila bokadiloa eta baso ardoa, arbolapetan.

4 ASTELEHENA**ZINEA**

"El último gran héroe". 7etan eta 9,30etan.

KATEKESIAREN HASIERA

San Juan Bataiatzailearen parrokian.

ESKULANAK IKASTAROAREN HASIERA

"Ekin" emakume taldeak antolatuta. Emalea: Mila Akizu.

HITZALDIA

Gaia: "Nola lagundu haurri heldutasun prozesuan". Hizlaria: Isabel Zuloaga. 3, 4, 5 urtetako haurren gurasoentzat. 6,30tan, Almeneko aretoan.

SAN MIGELAK OÑATIN

Koadrilen arteko mozorro erakusketa. Eguerdiko 12etan. Gualdean dantzaldia EGAN taldearekin.

FAMILI ETA GIZARTE HEZKETARAKO ZENTRUAREN IKASTAROK

Ikastaroak arlo desberdinetan. Goizerako antolatu diren ikastaroak: unibertsiterako sarrera, sukaldaritza, masaia eta erlajazioa. Arratsalderako: puntua eta gantxiloa, analisi transakzionala, psikologia, hezkuntza pertsonala, eskulanak, sukaldaritza, alfabetatzea. Gauerako: psikologia, marrazkia eta pintura, sukaldaritza, eskulangintza, gitarra, tapizgintza eta makramea eta unibertsiterako sarrera.

**BEGIRALE IKASTAROA**

Txatxilipurdi taldeak antolatuta, 18 urtetik gorakoentzat. Ikastaroa urrian hasiko da, eta apirilean bukatu. Ikastaroa amaitzean Eusko Jaurlaritzak onartu duen "Haur eta Gazteen Atsedendaldiko Begirale Titulua" eskuratuko da. Matrikula 22.000 PTA ingurukoa izango da. Interesatua bazaudete, asteartea baino lehen AED-n apuntatu.

5 ASTEARTEA**ZINEA**

"El último gran héroe". 7etan eta 9,30etan.

HITZALDIA

"Zer da emakume izatea gaur egun?". Hizlaria, Amaia Vazquez, psikologa kliniko eta sexu-terapeuta. 6,30tan, Aretxabale-tako udaletxe ganbaran.

HITZALDIA

"Nola lagundu haurri heldutasun prozesuan". 6, 7, 8 urteko haurren gurasoentzat. 6,30tan, Almeneko aretoan.

BILERA

Gaia: Maltzaga-Urbina autopista. Monterronen, arratsaldeko 7etan. Interesa duten guztiei irekia.

6 ASTEAZKENA**SUKALDARITZA IKASTAROREN HASIERA**

"Ekin" emakume taldeak antolatuta. Emalea: Mari Tere Altuna.

HITZALDIA

"Azala nola zaindu?". Hizlaria: Arantza Albisua. Arratsaldeko 4etan, Gizarte eta Heziketa zentruan, Santa Teresa kaleko 12. zenbakian.

HITZALDIA

"Nola lagundu haurri helduta-

BOSNIARRENTZAT LANPOSTUAK

Eskoriatzan dauden errefuxiatuentzat lanpostuak aurkitzen ari da Laguntza Batzordea. Bosniarrei lanen bat eskeini nahi badiezu, dei egin 714648 telefonora.

MONTERRONGO LIBURU BERRIAK

ASHLEY, Laura: **El gran libro de la decoración**. Everest
MILLER, J: **Cómo reconocer las antigüedades**. Leac
TELLAGORRI, Mikel: **Iparralde**. Sua
FLORES DEL MANZANO: **Andar por las cañadas reales**. Penthalon
FUENTES, Carlos: **El Naranja**. Alfaguara
RIBEIRO, Joao Ubeldo: **La sonrisa del lagarto**. Alfaguara
MUÑOZ MOLINA, Antonio: **El Robinson urbano**. Seix Barral
PILCHER, Rosamunde: **Tomillo silvestre**. Plaza y Janés
ROJAS MARCOS, Luis: **La ciudad y sus desafíos**. Espasa-Calpe
DEFTHLEFSEN, Thorwald: **La enfermedad como camino**. Plaza y Janés
GUIBERT, Hervé: **Al amigo que no me salvó la vida**. Tusquets
MAYFIELD, Robin: **Homeopatía: guía práctica**. Folio
GALBRAITH, J. Kenneth: **La cultura de la satisfacción**. Ariel
HAUR LIBURUTEGIAN
IGERABIDE, Juan Kruz: **Txokolate bagoan**. Elkar
Ali baba eta berrogei lapurrak. Pamiela
RODGERS, Frank: **Cómo dibujar animales**. Ed. B
ENDE, Michel: **La sopera y el cazo**. S.M
NOSTLINGER, Christine: **Simsalabim**. S.M
El libro de los bebés. Ed. B
Euskal Herriko eta munduko atlasa. Elhuyar
HERRIOT, James: **Hitz egingo balute**. Elkar
FREIXA: Santfeliu: **El fenómeno droga**. Salvata

ELBARRITUENTZAT NEGUKO EGONALDIAK

Gipuzkoako Foru Aldundiak, elbarritu fisiko larrirentzako neguko egonaldiak antolatu ditu. 21 eta 65 urte bitartekoentzat. Egonaldia Guardamar del Segura herri alikantearrean egingo dira. Programan parte hartuko dutenek, hileko irabazien %50a ordaindu beharko dute. Eskaerak 900. 43.43.43 zenbakira deituz egin behar dira.



“Nik Elkarriren ildoak jarraitzen dut apur bat. Kalte egiten dit konpetizio hori egoteak. Euren manifestazioa kristona izan zela azpimarratzen saiatzen dira batzuk, eta euren handiagoa izan zela diote besteek. Une batzutan, ez dakit zer pentsatu, ez dakit pake-egoera bat nola demontre lortu aztertzen ala besteak baino gehiago nola izan eztabaidatzen ari garen. Ez dakit nola esan: azkenean uste dut gai zentrala, hau da, pakea lortzeko bideak, albora uzten dugula, eta zenbakien dinamikan sartzen gara eta niri hori ez zait bat ere interesatzen.(...)”

Zoritxarrez, gero eta gehiago gara gaisotasun hau dugunak, eta gizartearen presentzia handiagoa dugun neurrian eta jendeak ikasi ahala, gureganako jokaerak ere normalduz joango dira. Baita komunikabideetan ere”.

Jon Salaberrik 93-9-19

egin

“Epe ertain eta luzera, ez da posible enpresak konpetitibo izatea, sarean funtzionatzeko gai izango den enpresa multzo bat herrialdean zehar zabaldurik ez badago, kalitatean ere bateraturik, denboran zehar iraungo duen konpetitibitatearen printzipioa gauza dadin. (...) Enpresek tokian tokiko izateari utzi dioten garai honetan, koste-irabazi printzipioan bakarrik oinarritzen diren lantegi nomaden garaian, ez dago tontakeriatan ibiltzerik. Enpresaren gestio integralari buruzko ikuspegiak Kalitatea azkar eta agresibitatez aplikatzen hasten ez bagara, kitto gure herrialde industrialdu izatea”.

Jesus Larrañagak

AENOR

“Selekzioko jokalaririk beteroena izateak erantzukizun gehiago izatea dakar eta hori dela eta, burua naizela eman du batzutan. (...) Sekula ez da jakiten kirolari baten karrerak zenbat urte iraungo duen. Asko edo gutxi izan daitezke; norberaren baitan, izan ditzakeen entrenatzaileen eta norbere buruarengan duen konfidantzaren baitan dago dena. Uste dut ez dela prebisorik egitea komeni”.

Andoni Zubizarretak 93-9-22 **EL MUNDO**
- PAIS VASCO

Nola garatu da Osasun eta Ingurugiroari buruzko mintegia?

Gure aldetik oso ondo irtezen ari da. Gertatzen dena da jende gutxi etorri dela, ez dakit zergatik, nahiz eta gaiak oso interesgarriak izan mundu guztiarentzat. Erantzun handiagoa espero genuen azken batean. 400 gonbidapen pertsonal bidali dira eta jende horietako asko ez da etorri, ez dakit zergatik, agian komunikabideak ez direlako arduratzen, ez hemengoak, baizik eta kanpoak.

Gaiak oso interesgarriak dira eta ponenteen maila oso altua. Oso altua. Jende hau ingurugiroari lotutako eguneroko arazoak ikusten ari da bere lanean, eta horregatik oso ondo azaltzen dituzte gauzak. Gure ikastetxearentzat oso interesgarria da (Bizgiro osasuneko teknikari espezialistak prestatzen dituzte San Viator-en, bi urteko modulo batean). Uste dut bai ikasleak eta bai irakasleak pilo bat ikasten ari garela.

Aurtengoa ez da lehenengo aldia, joan den urtean ere egin genuen, baina ikasleentzat bakarrik izan zen. Aurten konturatu gara, lanbideak ez daukala halako irudi bat lan merkatuan, eta horri begiratu zuten pentsatu genuen oihartzuna ematea, *a bombo y platillo* egitea. Kontuan hartu behar da Mankomunitatea gurekin dagoela hau antolatzen, eta gero Foru Aldundiaren laguntza ere badaukagula.

Hemengo hitzaldi guztiak grabatzen ari gara. Hori hemen gertuko da, Ikastolako mediatekan. Eta gero, ikusiko dugu, posible baldin bada konferentzien laborpen bat egitea eta horrekin publikazioaren bat... Baina oraindik ez dago ziurtatuta. Guri gustatuko litzazuke hori egitea, baina ez dakigu oraindik egingo den ala ez.



Txomin Heriz
San Viator Ikastolako irakaslea eta mintegiko antolatzailea

LENIZ

garagardotegia

Maritxu
zoriontsua!!



Iturriotz, 8
Tfnoa: 79 22 29
ARRASATE

BUMBA

taberna

GAU ON PASA!

Iturriotz kalea, ARRASATE

Greba eguna

Iantzi eta Kalparsororen heriotzengatik astelehenean Gipuzkoa osorako deitutako grebak erantzun desberdinak izan zituen Arrasateko kaleko bizitzako arlo desberdinetan. Lantegietan ez zen eragin handirik gertatu. Zenbait lantegi txikik itxi egin zuten, horien artean, Alecop, Astore, Asmovi edo Caldereria Epele. Fagor taldean, hala ere, ez zen grebarik egin Fagor Electrodomecoseko Bergarako lantegioan izan ezik. Komertzioaren artean, erantzun desberdina izan zen erdialde eta auzoetan, eta Eroskiko supermerkatua itxita egon zen. Ikastetxeetan, San Frantzisko Xabier ikastolak eta Umezaintzak greba egin zuten, San Viatorren ikasle batzuek ere bai, eta institutuak ikasleek ere greba. Eskola Politeknikoan lan egin zuten eta inguruko eskoletan, Almeneko batxilergoan eta Irakasle Eskolan greba izan zuten. Arrasateko eskola publikoetan ez zen grebarik izan. Udaletxeko zerbitzuetan ere greba izan zuten eta asteleheneroko Gobernu Batzordea asteazkenera atzeratu

**Manifestazio ugari**

Joan den ostiralean, Gurutze Iantzi eta Xabier Kalparsorori gertatutakoak ezagutzera eman zenetik, zenbait manifestazio izan ziren Arrasaten, ostiralean bertan, larunbatean, igandean eta astelehenean beste bat. Horietarik jendetsuena astelehen eguerdikoa izan zen, bereziki hainbat ikastetxetako ikasleek bat egin zutelako. Ez zen manifestaldietan intzidente handirik gertatu, baina larunbatekoan furgoneta bati buelta eman zioten manifestariek Otalora kalean eta trafikoa moztuta geratu zen. Protesta ekintzez gain, autobusak ere antolatu ziren Gurutze Iantziri Urnietan egindako omenaldira eta Kalparsororenera Zumaiara joateko. Udaletxean, hildako militante arrasatearren argazkiak eta oroigarri bat ere jarri zituzten.

zen. Greba egunean ez zen intzidenterik gertatu Arrasaten eta normaltasuna osoa izan zen herriko kale eta errepideetan.

Arrasateko lapurrak Bergaran

Arrasateko bi bizilagun,

Iratxe A.E., 18 urtekoa, eta Javier A.E., 28koa, atxilotu zituen Ertzaintzak joan den astean Bergaran, ustez zenbait lapurreta egin izanagatik. Atxilotutako bi lagunei aldean harrapatu zieten 40.000 PTA inguruko larruzko jaka bat ostea leporatzen diete.

Eroski eta Gregorio Ordoñez

Eroski kooperatibak Donostian hipermerkatu bat eraikitzeke eskupeko informazioa izan zuela salatu du Donostiako EAK. Garberako inguruan egingo da zentro komertziala, eta Eroskik lurra erosi zituen bertan, lur-saila birkalifikatu aurretik, publikoki hipermerkatua Belartza deritzon inguruan egin behar zela komentatzen zenean. Garberakoa birkalifikatu egingo zela aurreratu egin omen zioten Eroskiri, EAK salatu duenez, eta Gregorio Ordoñez PPko zinegotzi donostiarra omen da "salatari susmagarria". Ordoñezek ukatu egin du alde aurreko informaziorik eskaini zuenik. Ordoñez hirigintza zinegotzia da, eta bere sailak Garbera eta Ilunbe deritzoten inguruetako lurra birkalifikatzeko proposamen bat aurkeztu zuen udalbatzan, eta onartu egin zen. Jokaldi horrekin, hipermerkatuarentzat baimena lortzeaz gain, Ilunben Donostiako zezen-plaza egiteko baimena ere bideratu zuen Ordoñezek, azken hau kritika asko jaso dituen proiektua.

beatriz

● oinetakoak eta poltsak

"Betiko marketan udazken eta neguko oinetako aukera berria"

Erdiko kale, 11
Tfnoa: 79 14 33 ARRASATE



MIREN MURGIENDO

Ingenieritzako goi-zikloa: bide berriak urratzen

Jadanik arrasatear askok jakingo du Eskola Politeknikoak bere fundazioaren 50. urteurrena ospatuko duela 1993/94 ikasturtean zehar. Jende gutxiagok izango du, ordea, aurtentzen abiarazi duen Ingenieritzako goi-zikloaren berri.

On Jose Maria Arizmendiarririk Escuela Politecnica zeritzona sortu zuen egunetik gaur arte ibilbide luzea jorratu du ikastetxe honek, garai ezberdinez, teknologiaren aldaketa bizi eta azkarra dela medio, eskatzen zuten prestakuntza-beharrei erantzun asmoz.

Escuela Profesional Politecnica haren garai haietaz ezin mintza ninteke luzaroei, daukadan informazio apurra besteengandik jasoa baitut. Egongo dira horretaz hitzegiteko ni baino aproposagoak.

Dena den, 50 urte hauetan barrena fetxa edota gertakizunen bat balego azpimarragarria zera litzateke: 1968an, gaur egun Eskola Politekniko denari, Industri-Ingenieritza Teknikoko Unibertsitate Eskola izaera errekonozitu

zioteneko; hasiera batetan Valladolid-eko Unibertsitateari atxekia eta, 1977a geroztik, Euskal Herriko Unibertsitateari.

Hastapen xumeak izan ziren haiek: 1968/69 ikasturtean 175era iristen zen Ingenieritzan matrikulatutakoen kopurua; 1992/93 ikasturtean 1.100era. Ikus daitekeenez, pasa diren 25 urteotan Ingenieritza bilakatu da Eskolaren ardatz, bai eta erreferentzi-puntu ere; Irakaskuntza Ertainetan eman diren aldaketa eta aurrerapausuak gutxietsi gabe.

Esan dezakegu urteen poderioz Ingenieritzak heldutasun-maila onargarria erdietsi duela Eskola Politeknikoan, azken hiruzpalau urteotako ezaugarriak betetaria eta kalitate-nahia direlarik; horiek nahi nituzke, behintzat nik, gailentzea beste edozeinen artean.

Hala ere, Eskolaren izpiritua ez da inoiz puntu batera iritsi eta bertan gelditzearena izan: aurrera begira bizi nahi du, egoera zaileri aurre eginez, erronka berriei bizkar eman

gabe, beti ere —hori bai— gertuen duen inguruko industria-munduaren beharren zerbitzura. Aldaketa guztien gainetik dirauen konstantea da hori —bakarra esango nuke nik—; gizartearen zerbitzura lan egitea.

Testuinguru honetan kokatu behar dugu Ingenieritzako Goi-Zikloaren sorrera. Aurtentzen errealitate bihurtuko da 1991 urtean kontzebitu zen Eskola Haunditzeko Proiektua, Ingenieritzako Goi-Zikloa sortzea muintzat zuena. Bere egitura, konposizio eta programen finkapenean, Europako Mancheste, Stafford eta Lausanneko Unibertsitateekin elkarlanean aritu da Eskolako irakasleak, urte askotako lan-harreman estuan adierazle paregabea.

Hogeitabi ikasle osaturiko talde batekin ekin diogu Ingenieritzako maila berri honi, Sistemen Ingenieritza deritzon espezialitatean. Hemen dik aurrera bi urte edo bi urte t'erdiz arituko dira ikasten, proiektu baten aurkezpenarekin amaituko dutelarik zikloa. Bukatzean, Ingenieritzako Goi-Zikloko Diploma eskuratu ahal izango dute, aipatu Unibertsitateen partehartzea agetuko duena.

Badakigu nondik gatozen eta nora joan nahi dugun; eta garbi asko dakusagu Eskolak, bere indar hutsarekin, ezingo duela proiektua burutu. Ezinbestekoa gertatzen zaio Era-kunde desberdin eta enpresen lankidetzari, orain arte moduan. Horrexegatik aurre egiten diogu etorkizunari itxaropentsu.

* **ESKOLA POLITEKNIKOKO IDAZKARI AKADEMIKOKO**

USTEAK USTE

OSTIRAL USAINA

Norbaitek pentsatuko du asteburuaren atariari ari naizela, hitz hauekin artikulua hastean, eta ez dabil hain oker. Lanean ere agerian izaten da ostiralaren eragina, eskolan arnastu egiten da, astea etxetik kanpo ematen duenak amets egiten du ostiralarekin; denok antzera.

Bestelako usainen deskripzioarekin hasiko naiz, hala ere. Joan zen ostiralean buzkentzaren jaia izan zen Garagartzan, baina konturatu zara ostiralero izaten dela odoloste usaina Mondragoeko kaleetan. Gaur ere bazegoen. Baina aste honetan, ostiralak beste usain bat ere ekarri du: korbata usaina, traje eta soineko dotorearen zitz-bola usaina, makilaje, laka eta perfumea. Mirari usaina dago kaleetan baskalostean hasita.

Zenbat iraungo duen, ez jakin. Afariaren usaina izkutatu arte, normalean. Gero, puroarena, zigarroarena, zerbezarena eta zerbezaren ondorengoarena. Horraino ostiralekoa; larunbatekoa, arrastoari jarraituta asmatuko duzu.

ARANTZAZU LOIDI

Plus Ultra taberna

Maalako Errabala, 17
ARRASATE
Tfnoa: 79 20 57



Zurgin Kantoi, 2
Tfnoa: 79 20 04
ARRASATE



Produkzio sistema berriek lehen baino espazio gutxiago behar dute lantegietan.

Fagorren Bergarako sekzioak Arrasatera etorriko dira

Fagor Electrodomeesticos kooperatibaren Bergarako lantegia desantolatzeke eta husterko asma du Fagorrek. Neurriak ez du produkzio aldaketarik edo lan murrizketarik ekarriko, Bergaran dauden muntaia lerroak eta produktuak Fagor Electrodomeesticos-ek Arrasaten dituen beste lantegi batzuetara trasladatuko diren ezker.

Hiru produktu egiten dituzte gaur egunean Bergarako lantegian: *lababajillas* edo ontzigarbigailuak, akumuladoreak (gauez argindarra gordetzen dute, egunez berotzeko) eta aire egokituko aparailuak. *Lababajillas* egiteko lerroa Fagorreko Garagartzako lantegira eroango dute. Akumuladoreak San Andresko lantegira, gaur egun berogailuak egiten dituzten sekziara, eta aire egokitua ere San Andresera, hozgailuen sekziara.

Toki aldaketa ez da berehalakoa izango, epeka egingo da: 1994ean hasi eta 95era arte luza daiteke. Gailuen muntaia lerroekin batera, langileak ere trasladatuko dira Arrasa-

teko lantegietara.

Berrantolaketaren arrazoia espazioa soberanizatea eta ekonomizatzea da. Produkzio sistema berriekin, gailuak egiteko lehen baino toki gutxiago behar da, eta horrela tokia aurreratuko da. Garagartzako eta San Andresko lantegietan badago orain nahikoa leku. Bergarako lantegia hutsik geratuko da, hiru solairu eta 15.000 metro karraturekin, zeregin berrietarako edo saltzeko moduan.

Berrantolaketaz gain, proiektu berriak ere martxan ditu Fagor Electrodomeesticosek. Feders etxe amerikarrarekin, aire egokituko gailu berriak egiteko *joint venture* edo enpresa bateratze bat egingo da 1995erako. *Lababajillas* modelo berria ere diseinatzeko ari dira. Aldi berean, alde komertzialean instalazio arlorra hedatu nahi da produktuaren banaketa. Orain, dendari eta *mueblisten* bitartez saltzen dira gailu gehienak, eta aurrerantzean instalazio etxeen bitartez ailegatu nahi du Fagor Electrodomeesticos-ek merkatura.

Fagor-Solac kortsortzioa

Errepublika Txekarrera elektragailuak esportatzeko elkartu egingo dira Fagor eta Solac enpresak. Fagor Industrial eta Fagor Electrodomeesticos kooperatibek hartuko dute parte kortsortzio berrian, Electrodomeesticos de Euskadi (EDE), baina ez da produktu beririk egingo: etxe bakoitzak bere markako gailuak salduko ditu. Kontua komertzializazio gasteak egokitzea da. Enpresen arteko elkarlan hau EAEko enpresari eta politikari talde batek Errepublika Txekarrera egindako bisitaldi baten eman da jakitera. Oraingoz 400 milioi PTako inbertsioa egin dute Solac eta Fagorrek, eta lehenbiziko salmenta kanpaina Gabonetarako prestatuko dute. baina aurrera begira, zabaltzea espero dute, eta Errepublika Txekarrak gain, Txina eta Iparraldeko Afrika hartzea negoziotarako.

Plenorik ez

Ekaina amaieratik ez da udalbatza edo plenorik izan Arrasaten. Normalean hilabete bakoitzeko azken ostiralean izaten da plenoa, baina uztail-abuztuaren oporrak zirela eta irailaren gai-ordenik prestatu ez dela, urriaren erdialdean egingo da azkenean oporren osteko lehen plenoa. Aste honetan, bestetik, Gobernu Batzordeak ere data aldaketa izan du, grebaren ondorioz.

Iturriotz, 29 Tfnoa: 79 16 98 ARRASATE

Bidekurutzeta, 13 Tfnoa: 76 13 73 BERGARA

Eskaintza:
Umeentzako
betaurrekoak
3.000PTAtan



GARAGORRI
OPTIKAK

Aisialdiko begirale ikastaroa egingo zenukeela?

Zatoz AEDra edo deitu 79 54 46 tfnora.

HITZEGINGO DUGU




**TXATXILIPURDI
TALDEA**
AED ELKARTEA
arrasate-gipuzkoa

**BALDINTZA BAKARRA 18 URTE IZATEA
ETA URRIAK 6 ASTEAZKENA BAINO LEHENAGO DEITzea**

- Irakasle natiboak, profesionalak, titulu eta esperientziadunak

- Maila guztiak: umeak, gazteak eta nagusiak

- Enpresentzako zerbitzuak: itzulpenak, interpretariak, e.a.



- Ordutegia zure beharren arabera jarriko da (larunbat goizak eta ordutegi bereziak errele-bokoentzat)

- Kalitatezko eskolak

IDIOMASTER

**HIZKUNTZEKIN ZERIKUSIRIK DUENAK
GUREKIN DU ZERIKUSIA**

NON GAUDEN?

Ferrerias, 44 • Tfnoa: 79 07 84 • ARRASATE

Maltzaga-Urbinako buzoia

Zabalik dago dagoeneko Maltzaga-Urbina autopista proiektuaren inguruan proposamenak bilduko dituen buzoia. Iradokuzinak biltzeko toki hauek afektatutako udal-txe guztietan irekita egongo dira urrian zehar, eta Arrasaten udaltzaingoan dago kokatuta buzoia (aste-gunetan, 7.00etatik 21.00etara, eta larunbatean 7.00etatik 14.00etara).



Udaltzaingoaren leihoan jasoko dituzte proposamenak.

Buzoietan era guztietako proposamenak aurkez daitezke: proiektu osoak, plano eta guzti, edo ikuspuntu kontzeptualagoak ere bai (autopistaren aurkakoa, besterik gabe, adibidez). Proposamenak pertsonalak edo taldekoak izan daitezke, baina ez anonimoak: proposamenak gero antolatuko diren Interbentzio Gune Partehartzaileetan (IGP) defenditu egin beharko dira, pertsonalki, eta horretarako izendatutako norbaiten bidez.

IGPetan zozketaz hautatutako 350 herritar bilduko dira (57 arrasatear barne) urtarri-

letik, eta proiektu eta proposamen desberdinen artean egokienak gomendatuko dituzte. Erabaki hori ez da binkulantea izango baina IGPen antolatzaileek uste dutenez, administrazioak kontuan hartuko du.

Bestetik, Deba Garaiko Mankomunitatean bildutako udalek IGPen erabakia onar dezan eskatu diete Jaurlaritza eta diputazioei. Instituzio hauek, dagoeneko, Maltzaga-Urbina ardatzean peajeko autopista egin beharko litzatekeela adierazi dute.

Roneokoak greban

Roneoko langileak greba egingo dute datorren astelehenean eta beste lau egunez (txandaka, ez segidan), 74 langileren kanporaketaren aurka. Aldi berean, dena den, zuzendari-tzarekin biltzekoak ziren ostegunean, negoziatzen hasteko. Langileen eskaera nagusia kanporaketarik ez gertatzea da. Aste honetan, beren mobilizazioekin segitu dute langileek: auto karabana, bide mozketak, eta manifestazioa ostegunean.


Arrisku soldatak: atzerapena

Arrisku soldatako programako proiektu aukeraketa atzeratu egin du Udalak, aholkularitza zerbitzu baten tutoretza eskatuko baitu.

Ehune
Apaintketa

Etxe Txukuna
Txoko Kuttuna

Otalora, 21
Tfnoa: 77 11 48
ARRASATE




Tanborradarik ez zutela eta, Garagartzarrek jaietan zerbait berezia antolatzea pentsatu zuten orain lau urte. Horrela jaiotzen dira eta neanderthald gizoni errezezimendua egiteko ideia. Ostiralean ere antortzekin irten ziren haizulotik. Bada ba oraindik ere Garagartzan, lamina eta neanderthald garaiko gizonik!

Arrasateko EAJ-PNVk urtero bezala txozna jarri zuen Salburuako zelaietan joan zen domenak izan zen Alderdi Egunean. 300 lagun lanean, txorizo, buzkentza, bokadilo eta bazkariak ematen. Eramandako dena gastatuta bueltatu ziren etxera. Eguraldia erdipurdikoa, baina ospakizun arrakastatsua, beraz.



Joan zen ostiralean, Arrasateko autobuskada bat gazte joan zen **Jon Anduezak** ETBn aurkezten duen programara. Arratsaldeko laurak inguru heldu ziren Miramonera eta hamaika t'erdarak arte egon ziren. Nekatuta bukatu zuten, baina pozik; diru apur bat ere ekarri baitzuten. Guztira, 30.000 PTA inguru. Jakina, berriz ere joateko desiatzen daude.



Txozkitegi S.L.

Gozotegia • Italiar izozkitegia • Kafetegia

Iturriotz, 7 Tfnoa: 79 81 68
ARRASATE



Uribarriko jubilatuek badakite denbora nola pasatu. Asteazkenean eskursioa egin zuten. Lehenengo iparralderuntz joan ziren eta ondoren Irunera bazkaltzera. Argazkian ikus

daitekeenez, autobusari itxaroten ere egon behar izan zuten. Itxura denez, txoferrak ez zuen Arrasate ezagutzen eta horregatik ez zen ordurako heldu.

Axeritarrak gaitzizenez ezagutzen diren arren, **Arregi** abizena dute argazkian ageri diren gehienek. Axeritar lehengusu eta lehengusina guztiak, urtero legez, iraileko azken larunbatean bazkari bat egiteko batu ziren. Talde majoa, baina oraindik ere gehiago omen dira. Ea ba, datorren urtean falta direnak animatzen diren.

IZEN PROPIOAK

● **Bea Jimenez** arrasatearrak, 29 urte, asteburuan Oñatin burutu zen eskalada txapelketa irabazi zuen. Bea orain Oñatiko Correos-en ari da lanean.

● **Magdalena Rubio**, 56 urte, La Mercek ikastetxeko zuzendari berria da, Rosario Ramonek Arrasate utzi eta gero. Magdalena nafarra da. Arrasatera etorri baino lehen, hiru kurtso Leioako Mercedesdrietan eman zituen.


● **Jesus Catania Cobo**, 51 urte, Fagorren etxe dibi-sioko lehendakari ordea dena, Txekoslovaquian egon da negozio batzuk egin asmoz. Jesusekin batera Euskal-Herriko beste hainbat enpresari izan dira bertan. Jesus Catania altsasuarra da, baina Aretxabaletan bizi da.



TXOKOLATEGIA

ANDA MARTXU!!

Otalora Lizentziatua, 21
Tfnoa: 79 88 79
ARRASATE



ALMEN
IKASTOLA

HAUR HEZKUNTZA ETA LEHEN MAILAKO **GURASOENTZAT HITZALDIAK**

Hizlaria: **Isabel Zuloaga**, ASPACEko sikologoa


Gaia: **Nola lagundu haurrari heldutasun prozesuan**

Eguna: **urriak 4, astelehena: 3, 4 eta 5**urtetako haurren gurasoentzat
urriak 5, asteartea: 6, 7 eta 8 urtetako haurren gurasoentzat


Ordua: arratsaldeko 6,30ak

Tokia: **ALMEN** ikastolako aretoa

LORATEGI




Iturriotz, 7
Tfnoa: 79 04 67
ARRASATE



OLARTE KALEA, 45
Tfnoa: 79 67 84 ARRASATE

*maritxu
nora zoaz?
ispilura*

**OLARTE KALEA, 45
TFNOA: 79 67 84
ARRASATE**



Maritxuko kurrelak

Hori da lana Maritxu gauak ematen duena! Joskinei, Maritxu Kajoi baino lehenago jo ta ke aritu beharra tokatzen zaie. Ileapaintzaile, tabernari eta sukaldariek egun berean gelditu gabe lan egin behar izaten dute. Kale garbitzaileek berriz, Maritxu ostean lan estra edukitzen dute.

Ordu gutxi irauten duen festa da, baina hilabete lehenago prestatzen hasi beharra dago.

Maria Agirre

**JOSE ANTONIO MENA:
"INOIZ BAINO ZABOR
GEHIAGO"**

Eguna zabaldu orduko, kale garbitzaileak gauean zehar pilaturiko zikinkeria biltzen hasten dira. Gaua bukatu dela iragartzen digutenak dira.

**– Maritxu Kajoi egunean ir-
tengo duzu?**

– Bai, baina hurrengo goizean, goizeko 6etan kaleak garbitzen hasi behar dut. Irte-ten badut, gaupasa egin behar dut. Etxera joan, trajea kendu, lanerako erropak jantzi eta kaleak garbitzera.

**– Zuek kaleak garbitzen eta
jendea oraindik juergan?**

– Bai, normala da gaupasero guztiakin elkartzea. Baina ondo konpontzen gara eurekin. Jendeak kaleak garbitzen ari zarela ikusi, eta errespetatu egiten zaitu.

**– Maritxu ostean zer ego-
ten da zikinen?**

– Enparantza eta alde zaharra. Gehienbat hori ondo garbitzeaz arduratzen gara, gehiago pilatzen gara hemen.

**– Zer da gehien batzen du-
zuna?**

– Kristalak, botailak eta batez ere, plastikozko edalontziak. Poltsakada basoak biltzen ditugu.



Biona taberna bete beterik egoten da.

– Lan extra larunbatean?

– Bai, noski. Kaleak zikinak egoten dira.

**– Zabor ugari biltzen du-
zue?**

– Bai, zakar doblea batzen dugu.

**– Zuek zarete gaua bukatu
dela adierazten duzuenak?**

Bai, baina nahiz eta gu lanean hasi, festak oraindik iraun dezake.

Maritxuko gau

baten 500

edalontzi inguru

apurtzen dira

taberna baten.

TABERNA GABE, JAIRIK EZ

Jai guztietan bezala, Maritxu Kajoi jaiean ere, tabernak protagonista izaten dira. Berauetara sartzeko alde guztietatik bultzatu behar izaten da eta batzuetan barrara heltzea record bat izaten da. Taberna horietako bat Biona da.

**– Noiz hasten zerate izoz-
kailuak betetzen?**

Bi egun lehenago hasten gara eta goraino betetzen ditugu.

**– Zenbat kamarerok lan
gingo duzue ostiralean?**

– Sei egongo gara.

– Ze ordu arte?

– Goizeko seirak arte, gutxi gorabehera.

**– Zenbat edalontzi apur-
tzen da horrelako gau baten?**

– 500 edalontzi inguru. Aurten plastikozko edalon-

tzietan zerbituko dugu.

**– Zein edari eskatzen di-
zute normalean?**


– Gehien, kalimotxoa eta garagardoa. Hori bat, txanpanik ez digute eskatzen.

**– Jendeak Maritxu Kajoi
egunean ohi baino gehiago
edaten du?**

– Beno, beharbada gehiago, baina ez askoz ere gehiago.

**– Zuek dotore jantzita lan
gingo duzue?**

– Ez dakigu zertarako, baina bai. Dotore jantzita, baina zapatilekin.



Iñigo Txintxurreta Ostadar txarangan jotzen du.

IÑIGO TXINTXURRETA: KALE ANIMAZIOA

Jendeak berez animatuta irtetzen duen arren, jendeari dantza eragiteaz arduratzen dira txarangak. Ostadar txarangakoak aurten arduratuko dira hortaz. Hori bai, hainbeste jenderen artean tokirik egitea lortzen badute behintzat.

– Zein ordutan hasiko zarete kaleak animatzen?

– Arratsaldeko zazpi t'erdia inguru hasi eta goizaldeko hiruak arte.

– Maritxu Kajoi egunean izaten den jendetzaz nahikoa lan izango duzue tokia egiten?

– Izugarria izango da. Beldurrez ere bagaude. Gure helburua erdi ingurua animatzea da, baina egoten den jendetzaz ez dakigu ahal izango dugun ere.

– Zu zeu, Iñigo, arrasatearra zara. Inporta dizu Maritxu egunean lan egin behar izateak?

Ez, ez. Guk geuk ere oso ondo pasatzen dugu. Jendeaz erraz konektatzen dugu, eta ondo pasatzeko aukera izaten dugu geuk ere.

– Maritxu egunerako egoia da txaranga?

Bai, noski. Ez dakigu jen-

dea enteratzen den txaranga hor dagoela, baina ahalegin-du egingo gara.

– Ensaiatu duzue Maritxuko abestia?

Bai, hor ibili gara ensaiatzen. Txarangako gehienak Gasteiztarrak dira eta ez zekiten maritxu abestia jotzen. Beraz, erakutsi egin behar izan diet.

– Pieza berririk preparatu duzue?

– Bai, Flash Dance. Arrakasta handia izan zuen filmeko kantua.

– Arrasaten jendeak dantza egiten du?

– Bai, nagusiek batez ere.

– Non aurkituko dugu Ostadar txaranga ostiralean?

Ene, ba, jotzeko lekua aurkitzen dugun tokian egongo gara. Hori bai, alde zaharrear egoten ahaleginduko gara.



Andoni Roak ostiralean egun guztian zehar lan egingo du.

ANDONI ROA: MARITXUKO SALTSEROA

Maritxu egunean inork ez du etxean afaltzen. Horregatik jendeak hilabeteak lehenago enkargatzen ditu afariak jatetxeetan. Hala ere berandu ibiltzen direnak ere badaude eta hauek afaltzera inguruko herrietara jotzen dute.

– Andoni, noiz hasten zara Maritxu gauerako afaria prestatzen?

– Bueno menuen arabera. Normalean aste bat lehenago hasten naiz saltsak preparatzen, hauek ondo kontserbatzen baitira. Arraina berriz, legatza, kokotea eta halakoak, ostegunean gertatuko ditut.

– Jendea noiz hasten da afaria enkargatzen?

– Gure kasuan, uztaila bukaerarako guztia beterik geneukan. Toki batzuetan jendeak afaldu bezain pronto hurrengo urterako tokia erre-serbatzen du.

– Eta ostiralean?

– Ostiralean goizeko 8etan hasiko naiz lanean, eta gaueko 12etarako bukatzea espe-

ro dut.

– Ostiralean, beraz egun guztian zehar lan egin behar. Inporta zaizu?

Ba, bai. Niri ere gustatzen zait ondo pasatzea, baina zer egingo dugu ba!

– Baina gero irtengo duzu?


– Bai, trajea jantzita, eta atletik irten bezain pronto guztia ahazten zait.

– Jendeak zer menu eskatzen du Maritxu gauean?

– Gazteenek haragia, eta nagusiagoek arraina.

– Maritxu gauean derrigorez kanpoan afaldu behar da?

– Nik uste dut baietz. Festa arrasaldean hasten denez, ez du etxera joaterik merezi.



Kati Andresek hogeitabi soineko egin ditu.

KATI ANDRES: GAUPASAK JOSTEN

Kati Andresen josteko makina tarra-tarra ibili da azken egunotan. Izan ere azken hilabete honetan, jostunak ez dio makinari deskantsurik eman. Maritxu egunerako soinekoak gertu eduki behar eta, berari ere tokatu zaio gaupasaren bat egitea.

– Noiztik egiten dituzu Maritxurako trajeak?

– Maritxu hasi zenetik.

– Eta jendeari gero eta gehiago ardua zaio Maritxu egunean elegante irtetea?

– Bai, dudarik ez. Lehen jendea etxean zituen erropekin ateratzen zen. Soineko beltzen bat zuenak, horixe jazten zuen. Gaur egun, emakumeak batez ere soinekoa egiteaz arduratzen dira.

– Zenbat soineko egin duzu aurten?

– Hogeitabi. Gehiago egi-
tea ere eskatu zidaten, baina denborarik ez dudanez ezetza eman nien.

– Gizonezkoentzat traje-
rik?

– Aurten ez, iaz tokatu zitzaidan gizon bati trajea egi-
tea.

– Eta zelako soinekoak egi-
tea eskatzen dizute?

– Denek eskotedunak egi-
tea eskatzen didate. Neska gazteenek gainera, gona moztzak nahiago izaten dituzte eta nagusiagoek, luzexeagoak.

– Zure ustez nolakoa izan behar du Maritxuko jazkerak?

– Ba, beltza behintzat bai. Aurten adibidez, guzti-
katu didate soineko beltza egitea.

– Gaupasarik egin duzu makinaren aurrean?

– Urtero gauren bat, Maritxurako trajeak egiten pasatzen dut. Aurten ere seguruenik egingo dut gaupasarik. Ostiralean ere arratsalderarte josten geratuko naiz.

– Zuk zeuk egin duzu zeuretzat Maritxurako jantzirik?

– Egia esan, inoiz ez dut egin. Baina urtean urtean eta jende gehiago jazten denez, datorren urterako niretzat ere egin beharko dut trajea.



Josebaren ileapaindegian abuztuan hasten dira txandak ematen.

JOSEBA BARANDIARAN: EGUN OSOA MOINOAK EGITEN

Orrakeraz aldatzeko eguna da. Neska gehienak, ilea batuta edo moñoren bat eginda ateratzen dira. Mutilak berriz, ilea gominaz betetzen dutenez, inoiz baino "disdiratsuago" egoten dira.

– Joseba, jendea noiz hasten da Maritxu egunerako txanda eskatzen?

– Opor ostean, abuztu bukaeran, jendea hasten da deitzen.

– Beraz, bizkor beteko zaitzu eguna?

– Bai, hile hasieran txanda guztiak hartuta egoten dira. Maritxu egunean ileapaindegira joan nahi duenak badaki denboraz ordua eskatu behar duela.

– Maritxu egunean zein ordutan hasiko zara lanean?

– Beno, goizeko hamarrak inguru hasiko gara lanean, baina egun guztian zehar ez gara geldituko. Gaueko bederlatziak arte lanean egongo gara.

– Nekatuta bukatuko duzu eguna, ba?

– Bai, baina egun polita da. Gainera, egun honetan orrazkera desberdinak egiteko aukera dugu. Egun osoa moinoak egin eta egin pasa-

tzen dugu.

– Maritxu eguneko orrazkera aldatuz joan da?

– Urtero joerak aldatuz doaz eta Maritxu eguneko orrazkera ere urtetik urtera aldatu egiten da zertxobait.

– Gizonezkoak ala emakumezkoak etortzen dira gehiago?

– Emakumeak askoz ere gehiago. Mutil batzuk ere etortzen dira, baina hauek erraza dute. Aski dute gominapur bat emanda. Egun honetan emakumeek daramaten orrazkera konplikatuxea goa da.

– Gehiegizkoa deritzozu egun honi?

– Ez, ez. Jendea ilusioz beterik ikusten duzu. Egun polita da, oso berezia.

– Maritxu eguna lanean. Eta hurrengo eguna?

– Bixamon apur batekin baina lanera. Larunbatetan beti ezkontzetarako lan egin behar izatea tokatzen zaigu, beraz lanera.

**MONDRA AURRERA
FEDERAZIO KOPAN**

Ondarroako Aurrerari 4-0 irabazi ondoren, Federazio Kopako lehen kanporaketa gainditu egin du asteazkenean Mondrak Touringi 1-0 irabazi ondoren. Orain, Amurrioren aurka jokatuko du Kopan, partidu bakarrean eta zelai neutralean, baina noiz eta non erabakitzeke dago. Amurriori irabaziz gero,



Trikiti, azken denboraldiko txapelkun flamanteak

EMAITZAK

Futbola

3. maila: Mondra 4 - Aurrera 0
Federazio Kopa: Mondra 1 - Touring 0
2. regionala: Segura 2 - Mondra 1
Hurrengoak:
3. maila: Durango - Mondra.
Tabira, igan. 16.30.
2. regionala: Mondra - Antzuola.
Atxabalpe, lar., 16.30

Saskibaloia

2. maila: Gasteiz 79 - Arrasate 93
Hurrengoak:
2. maila: Arrasate - Emb. Argal.
Musakola, lar., 18.30.
Jub. mutilak: Fortuna - Arrasate A.
Lazkao, lar., 18.30
Arrasate B - Lux Zarautz.
Musakola lar., 16.00.
Jub. neskak: Patercam - Loiola.
Musakola, igan., 11.00.

Eskubaloia

Liga hasiera:
1. eskualdekoa: Arrasate - Urola.
Iturripe, igan., 12.00.
2. eskualdekoa: Arrasate - Leitzaran. Iturripe, lar., 18.00

Rugby

Lagunartekoa: Arrasate 26 - Durango 0

Zaldibar hasten da!

Marka guztiak hausten hasiko da Maritxu Kajoireen biharamunean Zaldibarko futbito txapelketa. Derrigorrezko geldiuenearen ondoren, txapelketa hau berreskuratu zenez 4. denboraldia izango 93-94 hau, eta dagoeneko herriko kirol bizitzako adierazpenik partizipatiboena izan liteke seguru aski: aurtan 80 talde arituko dira, 1.175 jokalarari. Iazko marka ere (72 talde) gainditu dute antolatzaileek.

20 ekipoko lau talde egin dira eta partidu bakarreko liga jokatuko da lehen fasea

asteburuero, otsaila arte. Ondoren, talde bakoitzeko zortzi lehenak sailkatuko dira. Hurrengo faseen antolaketa oraindik erabat erabakitzeke dago.

Zaldibarko frontoia da txapelketa honen ikur nagusia, baina aurreko urteetan bezala, hainbeste talde izanik, Iturripen ere jokatuko dira partiduak. Hala ere, talde guztiek, txandak eginez, partidu kopuru bera jokatuko dute Zaldibarren.

Izen berri mordoia ageri da aurtengo taldeen zerrendan, baina kasu asko-

tan izena aldatu edo babeslea aurkitu duten talde zaharrak dira. Izen berrien artean, beti bezala, buruari bueltak eman dizkionik badago: Borrock'n'Roll edo Maccabi de Levantar, adibidez. Iazko irabazleek, Trikitik, izena aldatu eta Trikiti Txapelkun jarri behar ziotela komentatu izan da, baina azkenean ez omen dira ausartu. ARRASATE PRESSEK, aurreko urteetan bezala, lau orriko gehigarria kalera-tuko du datorren astetik aurrera txapelketaren inguruan. Bitartean, zorte on opa diegu guztie!



Autokarabanak alokatzen dira!

AMETS

T A I L E R R A K

Tfnoak: 78 19 50 / 78 25 92 OÑATI

- HERGO eta HOBBY karabanak.
- RIVIERA auto-karabanak.
- SANGO erremolkeak.
- Kanping eta karabana guztiertzako ordezkoi piezak eta osagarriak.



HIZKUNTZAK IKASTEA NAHI DUZU?

- Profesionalitatea
- Kalitatea
- Seriotasuna
- Esperientzia
- Emaidzak

CIMen horren garantia eskaintzen dizugu.

HURBILDU ZAITEZ GUREGANA!

CIM A.C.E.I.G. ren kide da (Gipuzkoako Hizkuntza

Eskolako Elkarte)

ARRASATE: Araba Etorb., 4 Tfnoak: 79 01 32 / 79 65 54
OÑATI: Olakua, 14 Tfnoa: 71 60 00

ZALDIBAR: 1. JARDUNALDIA

LARUNBATA 2

Zaldibar	
09.00	Bizkorrak - Zizti-zazta
10.00	Sokoakoak - Suministros Ugarte
11.00	Adelaida Haizea - Arrasate kristaldegia
12.00	Tuttifrutti - Zulus
13.00	Borrocn'Roll - Fosforos
14.00	Bayern Lenitz - Berango Sukaldeak
15.00	Betrayer - Bukanak
16.00	Monterrey Zubi Bel - Notxingan Florest
17.00	Alla kuidaius - Anbotoste KT
18.00	Potröak Lorategi - Revolution Rock
19.00	Arlutz - Auf dem koffer
Iturripe A	
09.00	Carbueros - Elisabeth
10.00	Bizkorrak Avenida taberna - Etxe mobiliario
11.00	Danok Lagun - Diego Antonio
12.00	Foto Imagen - Hirei
13.00	AC Surcos - Iluna taberna
15.00	Kopyprest - Leintz Garagadotegia
16.00	Potrosorri - Sibilius Rover
17.00	Nabarros - Pepelus
Iturripe B	
09.00	Kakajauri - Kirten Tropel
10.00	Nuevo taberna - Bodisca
11.00	Ezkinako Hontzak - Franciscanerr
12.00	Koak Lait - Laso Arregi
13.00	Los Dimy - Maccabi de Levantar
15.00	Ikatz - Jey Juliwer
16.00	Solano 7 Mares - Tovarixtx
17.00	Euskal Indarra - Fragucl Gol

IGANDEA 3

Zaldibar	
09.00	Leya - Los Dalton
10.00	Koxkas - Resakas
11.00	Gure Leku - Kriskibalda
12.00	Ojo Avisore - Ooole
13.00	Ganbelas - Irati STS
Iturripe A	
09.00	Whiskeria Linde - Zotz
10.00	Arrasate Kirolak - Atxanta ke te merece
11.00	Corinto taberna - Txoko taberna
12.00	Trikiti - Uglys Txinato
Iturripe B	
09.00	Motz - MZK Ganbelas
10.00	Alpen Krausser - Argi Ibili
11.00	Tronkoteak - Zuloak
12.00	Los Heredia - Mikelos

A taldea	Jokalari kopurua
ALLA KUIDAUS	18
ANBOTOSTE KT	23
ARLUTZ	14
AUF DEM KOFFER	12
BAYERN LENITZ	12
BERANGO SUKALD.	19
BIZKORRAK B. AVE..	16
ETXE MOBILIARIO	15
EUSKAL INDARRA	15
FRAGUEL GOL	13
IKATZ	15
JEY JULIWER	16
KOKKAS	13
RESAKAS	12
SOKOAKOAK	15
SUM. UGARTE	22
TRIKITI	17
UGLYS TXINATO	13
WHISK. LINDE	12
ZOTZ	14

B taldea	Jokalari kopurua
ALPEN KRAUSSER	15
TURARGI IBILI	13
ARRASATE KIROLAK	13
ATXANTA KE TE...	14
BETRAYER	18
BUKANAK	12
DANOK LAGUN	15
DIEGO ANTONIO	13
EXCAV. LETE	14
FANCY BOIS	12
GANBELAS	12
IRATI ST.S.	12
KOPYPREST	13
LEINTZ GARAGAR.	17
MONTERREY ZUBI B.	14
NOTXINGAN FLORES	12
OJO AVISORE	14
OOOLE	25
TRONKOTEAK	12
ZULOAK	17

C taldea	Jokalari kopurua
ADELAIDA HAIZEA	14
ARRASATE KRISTAL	19
CORINTO TABERNA	13
TXOKO TABERNA	13
BORROCKN'ROLL	15
FOSFOROS	12
FOTO IMAGEN	13
HIREI	15
KAKAJAURI	20
KIRTEN TROPEL	17
LEYA	12
LOS DALTON	14
LOS HEREDIA	13
MIKELOS	12
MOTZ	15
MZK GANBELAS	12
NABARROS	13
PEPELUS	12
POTOSORRI	13
SIBILIUS ROVER	11

D taldea	Jokalari kopurua
A.C. SURCOS	14
ILUNA TABERNA	18
NUOVO TABERNA	15
BODISCA	12
CARBUROS	13
ELISABETHI	12
EZKINAKO HONTZAK	14
FRANCISCANERR	15
GURE LEKU	16
KRISKIBALDA	30
KOAK LAIT	12
LASO ARREGI	17
LOS DIMY	13
MACCABI DE...	14
POTROAK LORATEGI	13
REVOLUTION ROCK	15
SOLANO 7 MARES	14
TOVARIXTX	16
TUTTIFRUTI	16
ZULU'S	15

UDALAITZ

TABERNA

Gure espezialitatea: Txanpiñoiak

Erdiko kale, 3 ARRASATE Tfnoa: 79 20 61

Monte
taberna

Zatoz Maritxu ospatzera!

Maalako errabala, 11 Tfnoa: 79 20 56



ITURRIOTZ
taberna
Girorik jatorrena!

Tfnoa: 79 16 04



ILUNTZ
Taberna

ARRASATE

Mariano Igartua

BANATZAILEA

Gau zoriontsu bat denontzat

Santxo Abarka, 2-1 Tfnoa: 79 18 16, 79 95 57 ARRASATE

MENDI
Taberna

Mendi da zure
etxea

Maalako Arrabala, 4
 Tfnoa: 79 20 54
 ARRASATE



UNED-BERGARA
ENPRESA LEGE-AHOLKULARITZA IKASTAROA

Norentzat: Zuzenbidean lizentziatuentzat
 Onarpen eskaria: Irailaren 28tik Urriaren 9ra arte.
 Informazioa: UNED-BERGARA Tfnoak: 76 13 42 - 76 13 43
 Idazkaritzako ordutegiak: - 76 29 62
 Asteartetik ostiralera: Goizez 10,30etatik 12,30arte
 Arratsaldez: 5,30etatik 8ak arte
 Larunbatak: Goizez 9etatik 12etara

AKADEMIA

BASTIDA

INEM-ek HOMOLOGATUTAKO IKASTETXEA



1993-94 IKASTARO EGITARAUA

- Informatika
- Kontabilitatea
- Takigrafia
- Mekanografia
- Klase Bereizgarriak
- Euskara

Helbide berria

Araba etorbidea, 3, 1º (ESKATU Eraikuntza) Arrasate Tel.: 79 32 16 - 79 77 13 Fax: 79 06 28

ANTZERKI EMANALDIA

BEDEREN 1ek
AURKEZTURIK:

“Argirikik

piztu

gabe”

SEXUALITATEAREN
HEZIKETA
KANPAINA




Urriak, 8, ostirala
Gauko 10,30etan
Amaia Antzokian
Sarrera: 500 PTA
(Gazte Txartelarekin 300 PTA)

ARRASATEKO UDALA


NEREA

• Ume-moda



- *Gizonezko eta emakumezkoen lentzeria*
- *Kortseteria*

Erdiko kale.
Tfnoa: 79 13 43
ARRASATE



LORAMENDI BIROLAK

PREST GAUDE ZU JAZTEKO

FORRO POLARRETAN AUKERA GUZTIA AUKERATUKO DUZU

ZURE GUSTOKO MARKAK: SALEWA, TRANGO, SILVY, BENGER, CACAO, ETIREL,.. ETA ASKOZ GEHIAGO

JANTZI ERA DESBERDINEZ LORAMENDIN



otozahar hau ez da hain zaharra, baina berri samarra izan arren bere tradizioa hartzen ari den ospakizun baten ingurukoa delako aukeratu dugu aste honetan. Maritxu Kajoi batzordearen prentsaurrekoa da, 1987ko Maritxu Ekitaldien berri emateko Karkabal elkartearen antolatutako zutena. Argazkian agertzen direnak, **Joxe Agustin Ibarluzea "Txispas"**, **Jabi Casado**, **Xabier Letona "Ataxi"** eta **Juan Bautista Agirre** dira, eta eurekin batera, prentsaurrekoaren berri jasotzen,

Eneko Bergara, sasoi hartan Sorgina Irratiko kazetaria.

Aurtengoarekin 17 urte beteko dira Mondragoen Maritxu Kajoi ospatzen dela; berez, orain 18 urte zen lehena antolatzekoa, baina urriaren 2an On Jose Luis Iñarra parrokoa hil zela eta, bertan behera geratu zen jaiak.

Urte hartako kartelean Joxe Letona ageri zen, eta urtero bezala Iñigo Arregi eta Juan Luis Goikoleak egina zen. Txanpaina ateratzen zen lehen urtea edo bigarrena izan

behar zuen. Lehen urtean Arabako Errioxatik ekarri zen, baina kexa batzuk medio, harezkerok Katalunian enkargatzen du Maritxuk bere txanpaina. Eskapularioa, berriz, hasieratik dago, baina lehen bi urteetan pegatina izan zen.

Mirariak, berriz, honako hauek batzuk: iturritik ardoa irtetea, Maritxu torero jantzi zenekoa, Arrasateko karneta, Maritxu Bankoaren dirua, pre-serbatiboak banatzea, lehorteko urtean ofrendako orduan euri zaparrada... Zein ote da aurtengoa?

PARIS

Pilarikako zubirako eskaint-



EROSKI

HOTELA	HELBIDEA	PREZIOA
H. AMIENS	11, Rue des Gares. 75010 PARIS	23.900
H. CLIMAT	31, Bvard de Strasbourg. 75010 PARIS	23.900
H. LOUIS BLANC	232, Rue de Faubourg St. Martin. 75010 PARIS	25.900
H. CARLTON	55, Bvard Rochechouart. 75009 PARIS	25.900

ZURE IRAGARKIAK DEBALDE HEMEN! Idatz ezazu Azoka kaleko, 1era edo dei egin 77 05 65

Etxebizitzak

- **Iruñean pisua behar baduzu**, guk hiru lagunen-tzako lekua dugu. Tfnoa: 79 51 04. Leire.
- **Garajea alokagai behar dut**. Eskola Politekniko-tik gertu. Tfnoa: (94) 4 62 07 39. Asteheleketik ostiralera. Gauzez deitu. Maribel.
- **Lehenengo mailako arkitekturako** bi kasle, mutil baten bila dabilza Antiguon pisu bat betetze-ko. Tfnoa: 79 50 45.
- **Donostian pisu bat osatzeko** bi neska behar dira. Tfnoa: 77 05 88. Esther (eguerdian).
- **Pisua alokatzen da Donostian**, irakasle, ikasale edo enplegatuei. Merke. Tfnoa: 79 35 13.
- **Bi neska inglesa gara** eta urritik uztaile arte, pisu bat alokatuko genuke. Tfnoa: 79 90 36 (Rene-gatik galdetu).
- **Garaje bat edo leku seguru** bat behar dut motorra gordetzeko. Tfnoa: 79 90 36. Richard.
- **Donostian pisu bat osatzeko bi neska** behar dira. Tfnoa: 77 05 88. Esther (eguerdian).
- **Neska bat behar da ikasle pisu** konpartitzeko Deustun. Tfnoa: 79 49 69. Jende jatorra. Ana.
- **Bakarreko gela alokatzen da** Arrasaten. Pisua erdialdean. Tfnoa: 79 09 11.
- **Pisua alokatzen da Munarren**. Jantzia. Tfnoa: 79 77 85.
- **Bikote gazte batek pisua behar du alogeran** Arrasaten. Tfnoa: 77 08 55. Bulego orduetan deitu.
- **Neskentzako logelak** alokatzen ditut, sukalde eskubidearekin. Tfnoa: 77 03 36. Diana. Lan orduetan.

- **Bilboko parte zaharrean pisua** osatzeko ikasle bat behar da. Dei egin 79 34 51 edo 79 51 30. 7,30etatik 10,30etara.

Lana

- **Ingeleseko klaseak**. Maila guztiak. Talde txikiak. Tfnoa: 79 09 11. Garbiñe.
- **O.H.O. ko klase partikularrak emango nituzke**. Tfnoa: 79 69 41. Arantxa.
- **Klase partikularrak ematen dira**: O.H.O. eta R.E.M. Edozein gai. Tfnoa: 79 31 48. Maider.
- **Reflexologoa behar da**, 28 urtetik gorakoa, taldeetan lan egiteko. Tfnoa: 88 43 40. Goizez.
- **Zuberotar batek frantses klase partikularrak** ematen ditu (Frantzia eta Hizkuntz Eskola Ofizialean diplomaturia. Otorduetan deitu. 79 20 24. Renee.
- **Inork egiten ez dituen konponketa horiek nik egin ditzaket**. Konponketak: persianak, armairuak, aparailuen erreparazio txikiak e.a. Montaiak: apalak, tendereteak, kortinendako rielak e.a. Deitu 79 80 25 tfnora. Iñaki.
- **Neska batek lan egin edo umeak zainduko lituzke**. Tfnoa: 79 82 98. Monica.
- **Neska euskaldun eta esperientziaduna** prest haurrak edo pertsona nagusiak asteburuetan zaintzeko. Egunez zein gauzez. Tfnoa: 79 28 30. May.
- **Andre euskalduna prest** etxeko lanak egin, umeak, gaiso edo pertsona nagusiak zaintzeko. Tfnoa: 79 07 73.

Salerosketak

- **Lehen mailako zuzenbide liburuak salgai** (Deuston erabiltzen direnak). Erabilgarriak. Tfnoa: 79 19 77. Kristina.
- **Derbi FDS (74 c.c.) salgai**. Oso egoera onean.
- **Citroen 2 cv. Charleston salgai**. Pintatu berria. SS-O. 110.000 Km. 90.000 PTA. Tfnoa: (945) 28 79 40. Gauzez.
- **100 litrotako FAGOR markako termoa salgai**. Prezio ona. Tfnoa: 79 07 73.
- **Salgai SEAT Panda SS-AL**. 30.000 Km. Tfnoa: 78 70 30.
- **Haurren kapotadun kotxea salgai**. Egoera onean. Prezio ona! Tfnoa: 79 56 53.
- **DUPER-MAN-33.362 kamioia salgai**. SS-AH.3 urte. Garraio txartelarekin. Interesatuak deitu 79 14 21 edo 79 08 22 tfnoetara.
- **Ume-kapazo hankaduna erosiko nuke**. Tfnoa: 79 48 86.

Denetarik

- **Gizon batek kartera** diru apur batekin aurkitu du. Tfnoa: 79 05 19.
- **Llaveru bat galdu da, 4 giltzarekin**. Eskola Profesionaletik Gazteluondorako bidean. Tfnoa: 79 39 42.
- **Astero Gasteizera joateko kotxe** baten bila nabil. Goizeko 8,30etarako. Tfnoa: 79 40 71. Arantxa.

Aste Gazte

Bekak:

- 93-94 ikasturtean unibertsitate mailakoak ez diren ikasketak burutzeko bekak: 2. zikloko haur hezkuntza, 1. hezkuntza, OHO, HHI, batxilergoa, UBI, LH, IEE, lanbide moduluak, hizkintzak (eskola ofizialean), arte aplikatuak eta musika, eta dantza kontserbatorioetako hasiera eta erdi mailak. Epea: urriak 22.
- "Fundación Empresa Publica" ren beka deialdia, 30 urtetik beherako lizen-

tziatu nahiz diplomatuei zuzendutako (89 ikasturteko aurrerako titulua). Epea: urriak 8.

- **Kirol Materialak** euskaratzeko beka, Deba Garaiko Udako Kirol Zerbitzuak deitua. Diru-zenbatekoa: 300.000 PTA. Eskabideak bidaltzeko epea: urriak 10.

Ikastaroak

- **Alboka** ikastaroa, hastapena eta II. maila. Urritik maiatzera, larunbat goizez. Matrikula 2000 PTA. Plaza

mugatuak.

- **Larrua** lantzeko ikastaroa, hastapen maila. Urritik abendura, astearte eta ostegunetan, 6etatik 8etara. Matrikula 2000 (1000 ikasle eta langabetuentzat). Plaza mugatuak.

- **Astaldi** begiraleak prestatzeko ikastaroa Arrasaten. Urritik apirilera. Matrikula epea: urriak 6.

Lehiaketak:

- **Lanposturen** bat sortarazteko ideia lehiaketa, 18-30 urte bitarteko gazteei zuzendua. Proiektuak aurkezteko epea: urriak 14.

"Kristau ikuspuntutik ezin zaio Estatuari ukatu gizartearen defentsarako zerbitzu militarreko behartzeko eskubidea."

IRUÑEKO ARTZAPEZPIKUA



Informazio gehiago: GAZTE ZERBITZUA Tfnoa: 77 00 65

BERTSOAK

MARITXU KAJOI

Maritxu Kajoi deritzan festak aspaldi hartu zun gaina gau horretako giroa baita alaia ta atsegina urte osoan zehar ez dago egun bat honen berdina betiko legez eguraldiak ez du lagunduko baina ahalik ongien pasatzen denok egizue ahalegina.

Ostiraleko ajea pasa eta indarberritzean beste festa bat ere badago nere ajendan aukeran ziur naiz norbait egongo dela oraindik jaien gosean beste aukera bat ere badago guztiz nekatu ezean ta ez ahaztu kilometroak ditugula igandean.

MAIDER OSA

ZER NAHIAGO?

Maritxu Kajoi



Txikiteruen zaindaria

- Korbata edo pajarita? Korbata.
- Aurreratuko diguzu hurrengo urteko mirakulua? Mesedez!
- Inoiz egin dizuten oparirik politena? Festa hau.
- Zenbat urte dituzu? Festa hau ospatzen hasi zenetik, gazteagoa naiz: 17 urte ditut.
- Zer moduz egoten da kajoi horretan? Oso eroso eta gainera bista ederrak daude.
- Aurten euririk egingo du? Bai noski.
- Egin dituzun mirakuluetatik zein gustokoen? Denak izan dira apartak!
- Zer sentitzen duzu Maritxu Kajoi egunean? Hemendik irteteko gogoal!
- Edariak alkoholarekin edo alkoholik barik? Alkoholarekin, noski.
- Ardoa edo txanpaina? Txanpaina, eta nere markakoa bada, askoz hobeto.
- Abestirik gustokoena? Maritxu nora zoaz...
- Ogibiderik gustokoena? Kamareroa.
- Hurrengo oporretan nora joango zara? Arrasaten geratuko naiz, aurten bezala.



Arrasateko
natiboai
La puerta
del ingles-eko
natiboen partez

ONDO PASAU!



The door to

La puerta al



Burdiñate, 5
Tfnoa: 76 30 01
Fax: 76 00 32
BERGARA

Erdikokale, 37
Tfnoa: 79 90 36
ARRASATE

Mari Karmen Garai

Pintore hiperrealista

Musakola auzoan jaio zen Mari Karmen, baina aspalditik Arabako Lautadako Arrieta herrian bizi da. Uztailean erakusketa bat egin zuen Harresi Aretoran, Arrasaten lehena. Pintura zalea kontsideratzen da, inola ere ez profesionala.

— Noiz eta nola hasi zinen pintatzen?

— Beti gustatu izan zait pintatzea. Txikitan, Musakolako eskolan ere marrazkian destakatzen nintzen, behar bada beste ikasgaiak ez zirelako gustokoak, baina marrazkia bai. Gaztetan Gabonetako postalak egiten nituen, ezkondu nintzenez nire seme-alabentzako komikiak eta abar. Urte batzuk direla, oleoan pintatzen hasi nintzen eta oso gustora nago nire lanarekin.

— Nola definituko zenuke zure estiloa?

— Zaila da hori esatea baina nire ustez nire kuadroak hiperrealistak dira, hau da, nire kuadro batzuk argiak ematen dute, argazki estiloa

bezala defini daiteke estiloa. Kolore aldetik, granatea eta gorria asko gustatzen zaizkit. Behar bada nire kuadro gehienak ilun samarrak geratzen dira baina, tonu horien konbinaketak asko gustatzen zaizkit. Horretaz gain, gehien gustatzen zaidan gaia erlijiosoa da, figura eta santuen manto eta erropen bolumena markatzea asko gustatzen zait. Aurpegiak eta erretratuak ere gustokoak ditut, baina hori bai, beti detaile



guztiekin dit. eginda.

— **Detalista izanik, denbora asko behar izaten duzu kuadro bakoitza bukatzeko?**

— Batzutan bai, baina kuadroan asko sartzen banaiz eta

pintatzen gustora ari banaiz, orduan hasi eta berehala bukatzen dut. Niretzat, kuadro guztiak dira oso obra inportanteak, beti geratzen naiz oso gustora nire kuadroekin. Askotan saltzea ere asko kostatzen zait, pena handia ematen

dit.

— **Zenbat erakusketa egin duzu?**

— Orain dela uste batzuk, beste bi lagunekin batera egin nituen bi erakusketa: Araiako Udaletxean eta Salbatieran. Horretaz gain, Arrasaten ere erakusketa bat zabaldu nuen uztailean. Aurrera begira, berriz, ez dut proiekturik. Pintatzen jarraitzea da nire proiekturik inportanteena eta bide batez, nire kuadroekin gustora geratzea.

— **Zer moduz Arrasaten eginiko erakusketa?**

— Ondo, nahiko pozik geratu nintzen. Jende asko hurbildu zen Harresi Aretora eta kuadro batzuk saldu nituen. Dena dela, aurretik bildur apur bat nuen, Arrasateko pintore gehienak inpresionistak dira eta estilo desberdina dugu. Hala ere, nik guztiak errespetatzen ditut eta gustatu ere asko gustatzen zaizkit, nahiz eta askotan kuadro edo estilo asko ulertu ez.

.....

“Nire kuadro bakoitza obra bat da niretzat, saltzeakere pena handia ematen dit.”

HEMEN
Degustazioa
Croisantegia

MARITXU KAJOI
EDERRA DENONTZAT

Sebero Altube Plaza, 8 ARRASATE
 TFNOA: 79 94 99

Casa Ceciaga

Gau dotore
bat pasau!

Maalako Arrabala, 3 Tfnoa: 79 12 62
 ARRASATE

Garibai etxearen kondaira

Abuztuan ekin zitzaion Telefonikako edifizio zahararen demolizioari. Hori dela eta, Garibai etxeak izkutuan gordetzen zuen alboko pareta bistan gelditu da. Pareta horrek edertasun artistiko handia gordetzen du. XV. mendeko eraikuntza bat da, berpizkunde garaikoa beraz, eta bitxikeria moduan, bere balkoia Arrasaten eraikitako lehena izan zela aipatu behar da. 1533an Garibai jaiotzen ikusi zuen etxe hau, Gazte Zerbitzuaren eta Anti-militarismo bulegoaren egoitza da gaur egun.

Baina laurehun bat urte atzera begiratu ezker, historia aberatsa eta zabala aurkitzen dugu etxe honen inguruan.

GALDUTAKO ARIMA

Garibai hil zenean, bere arimari buruzko makina bat txutxumutxu zabaltzen hasi zen herritarren ahotan, hala nola, noraezean eta galduta zebilela eta bere arima, ez infernura eta ez zerura ez zela joan. Hainbeste hedatu zen

kondaira hau, zenbait esamolde sortu zirela honen inguruan, "Garibairen arima bezain galduta egon" esamoldea, adibidez. Esapide hauek, despistaturik edo erdi galduta zebiltzan pertsoneri erreferentzia egiteko erabiltzen ziren. Quevedok berak "La visita de los chistes" obran, Garibairen arimaren ezbehar bitxi hau irrigarri zuen, eta Calderon, Lope de Vega nahiz Tirso de Molina idazle ospetsuen idazkietan ere aurkitu ditzakegu hauen aipamenak.

1873an, bapateko sute baten ondorioz Garibai etxea guztiz kixkalita geratu zen. Harrez geroztik etxea sorginduta zegoela esaten hasi zen. Pedro Viteri filantropo arrasatearrak etxea berreraikitzeke erabakia hartu ez zuenerrate, etxe hartako leiho eta ateetatik ez zen inolako argi izpirik sartu. Baina etxea ez omen zen izan Viteri jaunaren gustokoa, gau bat besterik ez omen zuen bertan igaro eta. Viteri hil zenean, Arrasateko udalari utzi zion etxea eta honek, herri-liburutegiaren




Alecop-eko instalazioak.

egoitza bihurtu zuen.

1989an, berritze lanei ekin zitzaizenean, kanpokaldeko paretako plakan zegoen informazioa faltsua zelakoan, plaka berri bat ipini zen, eta etxearen historia eta Viteriren aipamena agertzen ziren bertan.

Telefonikako edifizio za-

harra botatzeak, kotxeen aparkalekurako izango den 260 m² azalera utzi du libre. Hemendik aurrera kotxeek leku finko eta jakin bat gehiago izango dute deskantsatu ahal izateko, ez ordea oraindik Arrasateko kale estuetatik zehar galduta omen dabilen Garibairen arimak.



GAU ZORAGARRIA IZAN

KAT & IDE

J A T E T X E A

Hataide Poligonoa. Tfnoa: 79 60 10 ARRASATE



Jolas-tokia

Sebero Altube 7, bis

• ESAERA ZAHARRA •

“Dabilen harriari ez zaio goroldiorik lotzen”

• JEROGLIFIKOA •



Nolakoa da Anaren senargaia?

• GURUTZEGRAMA •

1	2	3	4	5	6	7	
8							
9							10
11				12		13	
14				15			
16			17				
		18					19

J. B. AGORRIA

Horizontalak 1. Adoretu. 8. San Andres auzoko kalea. 9. Gogo. 11. Herjaun. 14. Nasa. 15. Adin handiko emakumea. 16. Akatsa duena. 18. (Ald.) Nahiko. 19. Arsenikoa.

Bertikalak 1. Puxtarri. 2. Ebatzi. 3. Jan edo lan egiteko altzariak. 4. Buruzagi arabiar. 5. Sodioa. 6. Teinkatu. 7. Begirada. 10. (Ald.) Frantziako ibaia (Rodanora). 12. Jadantik. 13. Usnatu aditzaren infinitiboa. 17. Gipuzkoako ibilgailuetan.

• HOROSKOPOA •

Aries Praka estu horiek jantzita ez duzu batere itxura onik.

Taurus Lapureta bat egingo dizu norbaitek, baina ez da ezer garrantzitsua izango.

Gemini Amodioa: ++. Dirua: -. Osasuna: +, eta gainontzekoa...

Cancer Beti berdin egiten duzu amets. Ez al duzu ikusten ezinezkoa dela?

Leo Lagun usteko norbaitek erabili egingo zaitu zerbaitetarako.

Virgo Kilometroetara Maritxu Kajoiko bixamona soinean duzula joan beharko duzu.

Libra Aurtengo Kilometroak-en sorpresa bat izango duzu, edo Nafarroa Oinez-en.

Scorpio Aste honetan lo zaudenean ibiliko zara ondo, bestela izugarri aspertuko zara.

Sagitarius Ez du merezi sukaldaritzan aritzerik, beste gauzetan azkarra zara, baina...

Capricorn Zure aurpegi zurbilduan urduritasun eta ezinegona antzeman liteke.

Aquarius Ez zara osasunetik ongi ibiliko: katarroa, sukarra... konpatiblea zara: arrain gehiegi hain pezera txikian.

Piscis Garai ona da diru pixkat aurrerazten hasteko. Saiatu!

IKASTAROAK


• ALBOKA

• URRITIK MAIATZERA
• HASTAPENA ETA II. MAILA
• MATRIKULA:
2.000 PTA



**IZENEMATEAK:
GAZTEENTZAKO
INFORMAZIO BULEGOA
TFNOA: 77 00 65**

• LARRUZKO ARTISAUTZA



• URRITIK ABENDURA
• HASTAPEN MAILA
• MATRIKULA:
2.000 PTA (1.000 IKASLE
ETA LANGABETUENTZAT)



• ARANTXA SALEGIREN GOMENDIOA •



Bertako produktuak kontsumitzea gomendatzen digu Arantxak: "barazki, fruta, arrain, okela... Euskadin denetik daukagu, eta oso kalitate onekoa gainera". Baserrieta-tik zuzenean edo plazara joanda, gero eta errazagoa da hemengo produktuez hornitzea, baita taberna eta jatetxe-entzat ere. Arazoa prezioa da, kanpotik merke ekarritakoarekin konpetitibo izatea da gakoa. Arantxa mutrikuarra da, baserritarra gainera. Produktu ezberdinetan, diferentzia kalitatean dagoela uste du.

• KOMIKIA •



• PROGRAMAZIOA •

**4 Astelehena**

1.30etan
Eguerdiko Berriak
1.35etan
Maritxu Kajoi saioaren errepikapena
8.8.30.9etan
Berriak
9.30etan
Mondrasport
10.00etan
Maritxu Kajoi saioaren errepikapena

5 Asteartea

1.30etan
Eguerdiko Berriak
1.35etan
Mondrasport-en errepikapena
8.8.30.9etan
Berriak
9.30etan
ATBketan
10.00etan

Gaeko Zinea:»Aita Jauna I»

6 Asteazkena

1.30etan
Eguerdiko Berriak
1.35etan
ATBketan saioaren errepikapena
8.8.30.9etan
Berriak
9.30etan
Tertulixan
10.00etan

Gaeko Zinea:»Aita Jauna II»

7 Osteguna

1.30etan
Eguerdiko Berriak
1.35etan
Tertulixan saioaren errepikapena
8.8.30.9etan
Berriak
9.30etan

Bakarka saioa, gonbidatua: Alustiza pelotaria.
10.00etan
Gaeko Zinea:»Arka galduaren bila»

8 Ostirala

1.30etan
Eguerdiko Berriak
1.35
Bakarka saioaren errepikapena.
8.8.30.9etan
Berriak
9.30etan
«Astebete» programa berria. Aurkezlea: Mikel Irizar.
10.00etan
Gaeko Zinea:»Ander eta Yull»

• SOLUZIOAK •

Bizarduna.
JEROGIFIKOA
Ss
So. 10. Saona. 12. Jadia. 13. Usna. 17.
Mahaia. 4. Emir. 5. Na. 6. Tirau. 7.
Bertikalak 1. Kanika. 2. Erabaki. 3.
As.
15. Aiso. 16. Akasduna. 18. Aski. 19.
Horizontalak 1. Kementis. 8. Ara-
GURUTZEGRAMA

INGELES:

KURTSO INTENSIBOAK
NAGUSIENTZAT

PARLANCE
Tfnoa: 77 06 83

ETORKIZUNEN LANBIDEAK

- Azafata, Harreman Publiko eta Turismo-gia Eskola centers
- Klinika laguntzailea (ikasketa ofizialeterako prestaketa)

SIERVAS DE JESUS, PASAJE DE SAN PEDRO, 1 TFNOA: 28 35 34
GASTEIZ



**a, eme...
interiores**

Etxeko ekipamendu osoa

Garibai 9. Tfnoa: 79 15 03 ARRASATE